

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

INFORMATIKA

Ordenagailu azkarrena

AEBETAKO GOBERNUAK eta IBMk iragarri berri dute munduko ordenagailurik azkarrena eraiki dutela: segundoko mila bilioi eragiketa burutu ditzake. Makinari *Roadrunner* deitzen zaio eta 7.000 plaka eta 120.960 prozesatzaile ditu.

Helburu militarrekin garatutako makina hau Los Alamos-eko Energia Departamentuan instalatuko da, “arma nuklearrek lehen segunduan duten portaera aztertu ahal izateko”. Beste erabilpen batzuk ere emango zaizkio ordenagailuari, klima-ereduetan, energiari buruzko ikerketetan eta astronomian, esaterako.

Makina egitea 100 milioi dolarretik gora kostatu da eta sei urte behar izan dira horretarako. Bitxikeria gisa esan dezagun aurreko



Sei urte eta 100 milioi dolar baino gehiago behar izan dituzte *Roadrunner* izeneko ordenagailua egiteko.

Osasuna

JABIER AGIRRE

Beldurra aldatuz doa adinarekin

BELDUR SENTSAZIOA geneetan dago itxuraz, baina beldurra eragiten diguten arrazoiak aldatu egin daitezke, adinean aurrera goazen heinean. Horrela dio, bederen, *Archives of General Psychiatry* aldizkarian argitaratu den azterketa batek.

Ikertzaile estatubatuar eta suediarrek 2.490 bikiren garapena jarraitu zuten, zortzi urte zituztenean hasi eta hogeita bitartera. Denbora horretan, beldurra eragin dezaketen hamahiru faktoreekin ea ikaratu ziren galdetu zieten. Iluntasuna, tximistak, dentistari egindako bisitak, armiar-mak edo leku altuak ziren faktore horietako batzuk.

Ikertekak baieztatu egiten du pertsona batek beldur-zeko joera handiagoa edo txikiagoa izatea eragiten duten faktore genetikoak aldatuz doazela bizitzan zehar. Haurtzaroan, biki batek beldurra izateko probabilitatea handiagoa zen baldin eta beste biki identikoak ere beldur horixe sentitzen bazuen. Biki ez identikoek



Tximistak dira beldur iturrietako bat.

(bibitelinoek) ere beldurra eragiten duten faktore berberetaz ikarutzen ziren, baina proportzio txikiagoan. Eta horrek adierazten du badela osagai genetiko bat beldurrean.

Hala ere, umeak izutzen zituzten faktore horiek ez zuten berdin iraun, bikiak haziz joan ziren heinean. Biki batzuek gauza beren beldurra sentitzen zuten zortzi urterekin, baina ez hamabost edo hogeita urte zituztenean. Eta behin heldu ondoren, pertsona horiek sentitzen zituzten beldurrak ez ziren ez

beraiek, eta ezta beraien bikiek ere nerabearoan sentitu zituztenak.

Adin bakoitzean beldur sentimendua eragiten duten geneak ezezagunak dira oraindik. Ikertzaile taldearen iritziz, gene horiek identifikatzeko lana hasi besterik ez da egin. Gene diferenteak aldarte edo izaera mota jakin batzuekin lotzeko saioak ere hasierako fasean daude. Itxaron egin beharko dugu, beraz.

landareak

errekorra ere IBMk zuela, *Blue Gene* makina-
rekin; orain ia bikoiztu egin dute haren abia-
dura. Hona hemen adibide bat: munduko
6.000 milioi biztanleok ordenagailu baten
aurrean 46 urtean gelditu gabe egingo genu-
keen lana *Roadrunner*-ek egun bakar batean
burutuko luke. |

INGENIARITZA

Eguzki energiaz funtzionatzen duen hozkailu berria

MADRILGO CARLOS III Unibertsitateko eta
Espainiako Zientzia Ikerketetarako Goi Kon-
tseiluko (CSIC) ikertzaile talde batek eguzki
energia erabiltzen duen hozteko teknologia
garatu du, negutegi efektua sortzen ez duen
eta ozono geruzari kalte egiten ez dion tekno-
logia alegia.

Hotz-makinak, esan bezala, eguzki energia
erabiltzen du, baina baita ere, behar izanez
gero, beste prozesu batzuetatik sobera geratu-
tako beroa, gehienetan alferrik galtzen dena.

Kanpoko tenperatura 28 eta 34 gradu arte-
koa denean, tresna berriak 12 eta 16 gradu
arteko ur hotza sor dezake. Ur horrek etxebi-
zitzak klimatizatzeke balio du, ur-aire motako
bero-trukagailua erabiliz.

Une honetan klimatizazio-tresnetan erabil-
tzen diren likidoak, neurri handiagoan edo
txikiagoan, kaltegarriak dira ozono estratosfe-
rikoarentzat, eta haien erabilpena gero eta
mugatuago dago. |

Aire-klimatizatzaile ekologikoa garatu dute
CSICek eta Carlos III Unibertsitateak.



JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Irrits galgarria

IGEBELARREKIN (nenufarrak, *Nymphaea sp.*) bateratsu,
6.500 urte jada, azaltzen da asta-uraza (*Lactuca serriola*, *L.*
virosa) Egiptoko ikonografian. Jakien gozagarri, oliotarako
eta irrits galgarri. Larrutarako haragi-
irrika kentzen duelako jartzen ote
zuten hildakoen ehortz-lekuetan? Bar-
biturikoen tankerako eragin lasaiga-
rria ere sortzen du bere izerdi-esneak;
hau da, apika, bizitza eternorako
lagungarri izatearen arrazoa... Hutsik
egin gabe zakil galanta tente margo-
tzen zioten ugalkortasunaren eta
sexualitatearen Min jainkoa landare
hau aldamenean duela azaltzen da.
Bere infusioak bizia salbatu omen
zion landare honi estatua bat eraiki
arazi zuen Augusto enperadore erro-
matarrak; loezina amets eder bihur-
tzen omen zion. Batzuk kitzikatu eta
beste batzuei lo har arazi, nola liteke?

Giorgio Samorini etnobotanikari
italiarrak argitu zuen zalantza. Asta-
urazaren esnean dauden osagai kimi-
koek aurkako eragin bikoitzak sortzen
dituzte, dosiaren arabera. Esne honen gramo bakar batek
minak baretu eta atsedena dakar, bi edo hiru gramok aldiz
bizkortu, suspertu eta adorea berritzen du. Kaukasoa eta
Turkistanen derbitxeek dantza kosmiko erorako trantzean
hutsik edo haxixaz nahasirik hartzen dute. Neurri gabeko
gehiegikeriak, aldiz, irrits-eza edo irrits-urritzea dakar, eta,
adi, bihotz ahula gelditu dezake. Kontuz, beraz, Minen haragi-
minaren miresle; sorbatz bikoia da letxu basati honen esnea.

1940 aldera arte usu saldu zuen farmazia industria nagu-
siak bazterreratua duen esne honi, ipularretako etxe gutxi
batzuek besterik ez diote eusten. Etxean egitekotan, zurtoi-
nean ebakiak egin, beheko aldean edo goitik behera pixka-
naka puskak kenduz, eta bertatik jariatzen duen esnea jaso,
lehortu eta hauts egin; infusioan edo erreta hartu. Beste era
batera landare osoa txiki-txiki egin eta ur berotan, irakin
gabe, sartu eta ore beltz lodi bat egin arte eduki. Erraz har-
tzeko modu onena alkoholetan aste batzuek sartu, iragazi
eta erauzkina ttantaka edozein edariri erantsita edatea da.

Etxe bueltan dut nik, eta entsaladan gordinik jan ohi
dut lohasma, amestia edo Min-minez naizenean...



Asta-uraza, 1885eko
grabatu batean.

ideia batetik errealitatera



web garapeak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa

www.iametza.com
T.943 37 67 16